

Zein da gure xede publikoa? Publiko horrek ze ezaugarri ditu?

Gizarte osoari zuzenduko zaion baliabidea izango den arren, batez ere gazteria izango du jomuga, gazteek hausnartzea eta haien artean kontzientzia sortzea delako gure helburua. Izan ere, gaur egungo gazteriaren zati handi batean zenbait gairi buruzko informazio eta interes falta dagoela ikusten dugu eta horri heldu nahi diogu. Ideia desberdinak (matxismoa, lgtbiq+ fobia, arrazakeria, faxismoa, etb.) gizartetik eta batez ere gazteen buruetatik ezabatzeko tresna izatera heltzea du helburu.

